

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

**BERGARAKO UDALA**

*Iragarkia*

2019ko otsailaren 28an Alkateak emandako dekretu baten bitartez Bergarako Udalak 2019 urterako ezarri dituen diru-laguntza programen deialdi irekia arautuko dituzten oinarriak onartu dira eta honen bidez argitaratzen dira.

Bergara, 2019ko martxoaren 1a.—Alkatea. (1374)

*Bergarako Udalak 2019 urterako ezarri dituen diru-laguntza programen deialdi irekia.*

XEDAPEN OROKORRAK

ZIOEN AZALPENAK

Bergarako Udalak, 2019ko urtealdirako onartutako udal aurrekontuetan, diru-izendapenak egin ditu elkarte edo entitateek, enpresek eta herritarrek hainbat arlotan egiten dituzten jarduerak sustatzeko, betiere udal interesekoak izanda. Udal interesekotzat jotzeko, herri-erakundeek lantzen ez dituzten ekimenak izan behar dira, edo bestela, horiek landutako ekintzen osagarri. Horregatik guztiagatik, bere aurrekontu-baliabideen esparruan, lehia askeko deialdi irekia egiten du Bergarako Udalak, 2019ko urtealdian egitekoak diren proiektuetarako laguntzak eta diru-laguntzak emateko.

Deialdi honek hainbat diru-laguntza mota jasotzen ditu agiri bakar batean, diru-laguntzak hartuko dituzten irabazi asmorik gabeko elkarte edo entitateei, enpresei eta herritarrei araudi-erreferentzia bakarra emateko eta, aldi berean, espedienteak izapidetzeari egin beharreko kudeaketa administratiboak samurtzeko. Honako udal sail hauek beren eskumenen eremuan ematen dituzten laguntzak sartzeko dira:

— Gizarte Zerbitzuak:

1. Garapenerako lankidetzeta-programak lantzen dituzten Gobernu Kanpoko Erakundeentzako (GKE) diru-laguntzak.

2. Gizarte-zerbitzuen arloan diharduten elkarteentzako diru-laguntzak.

3. Gazteendako alokairu sozialaren diru-laguntzak.

— Kultura.

— Kirola.

— Ingurumena.

— Ekonomia-sustapena.

1. Enpresa berrientzat lokala alokatzeko laguntzak.

2. Bergaran finkatuta dauden enpresak lehiakorragoak izateko azterlan teknologikoak egitera bideratutako dirulaguntzak.

Deialdi honetan hauek ezartzen dira:

**AYUNTAMIENTO DE BERGARA**

*Anuncio*

Mediante Decreto de alcaldía de fecha 27 de enero de 2019, se han aprobado las bases que rigen la convocatoria abierta de los programas de subvenciones establecidos por el Ayuntamiento de Bergara, por lo que se procede a su publicación.

Bergara, a 1 de marzo de 2019.—La alcaldesa. (1374)

*Convocatoria abierta de los programas de subvenciones establecidos por el Ayuntamiento de Bergara para el año 2019.*

DISPOSICIONES DE CARÁCTER GENERAL

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El Ayuntamiento de Bergara, en los presupuestos municipales aprobados para el ejercicio anual de 2019, ha efectuado diversas consignaciones económicas para la promoción de las actividades desarrolladas por las asociaciones y entidades, empresas y ciudadanía en distintos ámbitos, siempre que sean de interés municipal. Para que sean consideradas como tales, deberá tratarse de iniciativas distintas a las desarrolladas por las instituciones públicas o, en su caso, complementarias de las mismas. Por todo ello, y dentro del ámbito de sus recursos presupuestarios, el Ayuntamiento de Bergara realiza una convocatoria abierta, en libre competencia, para la concesión de ayudas y subvenciones destinadas a proyectos previstos para el ejercicio anual del 2019.

Esta convocatoria recoge varias subvenciones en un único documento, a fin de que las asociaciones o entidades, empresas o ciudadanas/os a quienes van dirigidas dichas subvenciones puedan contar con una referencia normativa única, simplificando al mismo tiempo las gestiones administrativas a realizar en la tramitación de los expedientes. Se incluyen aquí las ayudas que conceden, en el ámbito de sus competencias, los siguientes departamentos municipales:

— Servicios Sociales:

1. Subvenciones a Organizaciones No Gubernamentales (ONG) para la elaboración de programas de cooperación al desarrollo.

2. Subvenciones para asociaciones que desarrollan su actividad en el ámbito de los servicios sociales.

3. Subvenciones de alquiler social para jóvenes.

— Cultura.

— Deporte.

— Medio Ambiente.

— Promoción económica.

1. Ayudas a nuevas empresas para alquiler de local.

2. Subvenciones destinadas a la realización de estudios tecnológicos para la mejora de la competitividad de las empresas radicadas en Bergara.

Se establecen en esta convocatoria:

1. Oinarri orokorrak, Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera. Oinarri horietan zehazten dira, hain zuzen, deialdi guztietarako diren xedapen orokorrak, eskabidea egiteko jarraitu beharreko prozedura, onuradunak, eskatzaileei eskatzen zaizkien baldintzak, aurkezteko epeak, laguntzak jasotzeko zenbateko globala, eman beharreko zenbatekoa, diru-laguntza zertarako den justifikatzea, diru-laguntzak ordaintzea eta abar.

2. Oinarri espezifikoak, sail bakoitzak bere eskumeneko alorretan ezartzen dituenak, non laguntza-programa bakoitzaren berezitasunak zehazten diren; hala nola, diru-laguntza esleitu eta banatzeko irizpideak, aurrerakinak emateko aukera, aurkeztu beharreko agiriak eta abar.

## OINARRI OROKORRAK

### I. XEDEA

#### 1. artikulua.

Oinarri hauek 2019 urterako diru-laguntzak eta laguntzak emateko prozedura orokorra arautzen dute lehia askearen bidez.

#### 2. artikulua.

Deialdi hau 2019ko otsailak 28ko dekretuaren bidez onartu da.

#### 3. artikulua.

Diru-laguntza hauek emateko eta udalaren eta onuradunen arteko harreman juridikoa zehazteko, programa arautzen duten oinarriak eta diru-laguntza ematean indarrean dauden gainetako arauak bete beharko dira.

Oinarri espezifikoek bestelako erregulazio bat berariaz ezarzen ez badute behintzat, oinarri orokor hauetan ezarritako xedapenak eta baldintzak aplikatuko zaizkie deialdi honen barruan udalak onartutako laguntza edo diru-laguntza programa guztiei.

Oinarriotan xedatuta ez dagoen guztian, honako hauek aplikatuko dira: Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, 887/2006 Errege Dekretua, Bergarako Udalaren udal aurrekontuaren arauak, eta gai honen inguruan indarrean dauden gainerako arauak.

### II. ONURADUNAK

#### 4. artikulua.

Arau espezifikoetan ez badago zehaztuta zeintzuk izan daitezkeen onuradunak, laguntza jaso ahal izango dute egoitza eta jardute eremua Bergaran daukaten elkarte, entitateek, enpresa edo enpresari autonomoek, edo Bergaran erroldatuta dauden pertsona fisikoek, deialdiaren arabera, baldin eta sexu bazterkeriazko egitateren bat egiteagatik zigor administratibo nahiz penala jaso ez badute, eta dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legeak ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Irabazi asmorik gabeko elkarteek edo entitateek Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistroan edo bestelako erregistro publikoetan erregistratuta egon beharko dute, eta identifikazio fiskaleko zenbakia eduki beharko dute.

### III. ESKABIDEAK ETA AURKEZTEKO EPEA

#### 5. artikulua.

Aurkezten diren laguntza-eskabideak udalak prestatutako eskabide-ereduaren arabera idatziko dira. Eskabide-ereduak, orokorrak nahiz espezifikoak –dagokion kasutan–, oinarri-arau hauetan datoz eranskin gisara, eta interesa duten guztiek esku-ragarri izango dituzte bai udal bulegoetan bai udalaren web orrian ([www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)).

1. Las bases generales, conforme a lo establecido por la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en las que se establecen las disposiciones generales comunes a todas las convocatorias, el procedimiento a seguir para realizar la solicitud, las entidades beneficiarias, los requisitos exigidos a las solicitantes, plazos de presentación, cuantía global de las ayudas a percibir, importe a otorgar, justificación del fin subvencionable, abono de las ayudas, etc.

2. Bases específicas, establecidas por cada departamento en el ámbito de sus competencias, donde se establecen las características específicas de cada programa de ayudas, como los criterios para su adjudicación y distribución, concesión de posibles adelantos, documentación a presentar, etc.

## BASES GENERALES

### I. OBJETO

#### Artículo 1.

Las presentes bases regulan el procedimiento general para la concesión de ayudas y subvenciones para el año 2019, en libre concurrencia.

#### Artículo 2.

La presente convocatoria ha sido aprobada mediante decreto emitido el 28 de febrero de 2019.

#### Artículo 3.

Para la concesión de estas ayudas y el establecimiento de la relación jurídica entre el ayuntamiento y las entidades beneficiarias, se deberán cumplir las presentes bases y demás normativa vigente en el momento de su concesión.

Salvo que las bases específicas establezcan expresamente otro tipo de regulación, las disposiciones y requisitos establecidos en las presentes bases generales serán de aplicación a todos los programas de ayudas o subvenciones aprobados por el ayuntamiento dentro de la presente convocatoria.

En todo lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación la Ley 38/2003, General de Subvenciones, el Real Decreto 887/2006, la Norma Presupuestaria Municipal del Ayuntamiento de Bergara, y demás normativa vigente aplicable a esta materia.

### II. ENTIDADES BENEFICIARIAS

#### Artículo 4.

En caso de que en las normas específicas no se establezca quién puede ser beneficiaria, podrán optar a esta ayuda las asociaciones, entidades, empresas o empresarios/as autónomos/as cuya sede y ámbito de actuación estén en Bergara, o bien personas físicas empadronadas en Bergara, conforme a la convocatoria, siempre que no hayan sido sancionadas ni administrativa ni penalmente por incurrir en actos de discriminación por razón de sexo, y siempre que cumplan las condiciones establecidas por la Ley 38/2003 que regula las subvenciones.

Las asociaciones o entidades sin ánimo de lucro deberán hallarse inscritas en el Registro de Asociaciones de la Comunidad Autónoma u otros registros públicos, y deberán disponer de código de identificación fiscal.

### III. SOLICITUDES Y PLAZO DE PRESENTACIÓN

#### Artículo 5.

Las solicitudes de ayuda que se presenten se redactarán conforme al modelo de instancia elaborado por el ayuntamiento. Los modelos de solicitud, tanto los generales como los específicos en su caso, figuran como anexo de las presentes bases, y estarán a disposición de todas las personas interesadas tanto en las dependencias municipales como en la página web municipal ([www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)).

Elkarte, entitate edo enpresa eskatzailearen ordezkari legalak aurreko paragrafoan aipatutako eskabide-eredua bete eta sinatu beharko du.

Herritarren kasuan, herritar bakoitzak eskaera bat aurkeztu beharko du.

#### 6. artikulua.

Eskaerak Udaletxeko B@Zean (Bergararren Arreta Zerbitzu-an) aurkeztu beharko dira astelehenetik ostiralera, 07:30etik 15:30era, 21 laneguneko epean -Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita-, salbu eta ondoren aipatzen diren kasuetan -hauetan, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eta aurrekontu-izendapena agortu arte eskatu ahal izango dira, betiere gehienez 2019ko abenduaren 31ra arte-:

- Gazteentzako alokairu sozialaren dirulaguntzak.
- Ekonomia Sustapeneko alorreko dirulaguntzak.

Gizarte Zerbitzuko alokairu soziala: 2019ko abenduak 31 (diru partidaren arabera).

Ekonomia Sustapena saileko diru-laguntzen epea: Partida agortu arte. Urte bukaera baino lehen ez bada partida agortzen, epea 2019ko abenduak 31 izango da.

### IV. EKARRI BEHARREKO AGIRIAK

#### 7. artikulua.

Eskatzaileak, eskaera egiteko orduan, VI. eranskinean jasotako inprimakia erabili beharko du nahitaez (inprimakia ondo beteta eta sinatuta egon beharko da), eta eskaerarekin batera ondoren adierazten den dokumentazioa ere aurkeztu beharko du, betiere laguntza-programa bakoitzaren oinarri espezifikoetan eskatzen diren agiriez gain, edo eskatzaileak interesgarritzat jo dezakeen beste dokumentazioaz gain:

- Jarduera-programa (departamentu bakoitzak izan dezakeen ereduaren arabera).

- Aurrekontua.

- Bergarako Udalarekiko, Ogasunekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharreran egunean egotearen ziurtagiriak edo zinpeko aitortpena, baldin eta udalari baimena ematen ez bazaio konprobaketak egiteko.

\* Jarduera guztietarako eskatzen den diru-laguntza 3.000 euro baino txikiagoa denean, dokumentu horiek zinpeko aitortpen batengatik ordezkatu ahal izango dira.

- Departamentu bakoitzak bere arautegi espezifikoan jasotako agiriak.

- IFZ (NIF) aurreko urteetan aurkeztu ez badute.

- Elkaratek Eusko Jaurilaritzako Elkarteen Erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, eta horretaz gain aurkeztu egin beharko dute entitatearen edo elkaratearen eratze-aktaren kopia, berorren estatutuak eta une horretan zuzendaritza-batzordea nortzuk osatzen duten. Dokumentazio hori udalak aurretik baldin badu, zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute esanez udalak duen dokumentazio horrek indarrean jarraitzen duela.

Enpresa balitz, berorren sorreraren eskritura -behar bezala erregistratuta-, ordezkariaren botere notarialaren kopia, eta zuzendaritza-organoen osaketa.

- Herritarren kasuan NANaren kopia.

- Elkarate bat denean eskaera egiten duena, edozein dokumentu erregistratzeko eskatuko zaizkio ordezkariaren identifikazio dokumentua (NANA), elkaratearen IFZ (NIF) eta F0136 inprimakia (VII. eranskina).

En el caso de asociaciones, entidades o empresas, su representante legal deberá cumplimentar y suscribir el modelo de instancia citado en el párrafo anterior.

En el caso de tratarse de ciudadanas/os, cada persona deberá presentar una solicitud.

#### Artículo 6.

Las solicitudes deberán presentarse en el B@Z (Servicio de Atención al Ciudadano) del Ayuntamiento, de lunes a viernes, de 07:30 a 15:30 horas, dentro del plazo de 21 días hábiles a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, salvo en los siguientes casos que se podrán solicitar desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y hasta que se agote al consignación presupuestaria, y como máximo hasta el 31 de diciembre de 2019:

- Las subvenciones de alquiler social para jóvenes.

- Las subvenciones del departamento de promoción económica.

El alquiler social de Servicios Sociales: 31 de diciembre de 2019 (en función de la partida económica).

Plazo de las subvenciones del departamento de Promoción Económica: Hasta agotar la partida. En caso de que la partida no se haya agotado antes de fin de año, el plazo será hasta el 31 de diciembre de 2019.

### IV. DOCUMENTACIÓN A APORTAR

#### Artículo 7.

La persona o entidad solicitante deberá realizar su solicitud obligatoriamente utilizando el impreso recogido en el anexo VI (impreso que deberá de estar debidamente rellenado y firmado) y presentar junto con dicha solicitud la documentación siguientes, sin perjuicio del deber de presentar también la documentación exigida en las bases específicas de cada programa de ayudas o de aquella otra que la solicitante considere de interés:

- Programa de actividades (conforme al modelo que pueda establecer cada departamento).

- Presupuesto.

- Certificados, o declaración jurada, de encontrarse al corriente respecto a sus obligaciones con el Ayuntamiento de Bergara, con Hacienda y la Seguridad Social, en caso de que no se haya autorizado al ayuntamiento para la realización de comprobaciones.

\* En el caso de que la subvención solicitada para todas las actividades a realizar sea inferior a 3.000 euros, en lugar de los mencionados documentos se podrá presentar una declaración.

- Documentación recogida en la normativa específica por cada departamento.

- NIF, en caso de que no lo hubieran presentado en años anteriores.

- Las asociaciones deberán de acreditar que están inscritas en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco, y presentar además copia del acta de constitución de la entidad o asociación, sus estatutos y composición actual de su junta directiva. Si la documentación señalada está ya en poder del ayuntamiento, deberán de presentar una declaración jurada señalando que continúan vigentes.

Si se trata de una empresa, copia de escritura de constitución debidamente registrada y del poder notarial de su representante, así como la composición de sus órganos directivos.

- En caso de tratarse de ciudadanas/os, copia del DNI.

En caso de que la solicitante sea una asociación, para registrar cualquier documento se le exigirá el documento de identidad (DNI) de la persona representante, el NIF de la asociación y el impreso F0136 (anexo VII).

– Eskatzailea den pertsona fisikoaren edo juridikoaren zinpeko adierazpena, non azalduko den bete egiten direla Euskadiko 4/2005 Legea –Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa– eta 3/2007 Lege Organikoa –Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa–; horretaz gain, bertan ere azaldu beharko da ez dela zigortua izan, ez administratiboki ez penalki, sexu-bazterkeriako ekintzengatik. Pertsona juridikoen kasuan, adierazpen hori legezko ordezkariak sinatu beharko du eta horren barruan bertako zuzendaritza-organoak ere sartu beharko dira.

– Elkarteei dagokionez, berez elkartearen ordezkari legala lehendakaria da eta berak egin beharko lituzke eskaerak. Berak eskaerak egindakoa, ez du F0136 inprimakia aurkeztu behar. Aurkeztu behar du Elkarteen Erregistro agiria non azaltzen den bera dela lehendakaria.

Gerta daiteke lehendakariak botere notarial bat ematea beste bati. Kasu horretan podere notariala aurkeztu beharko luke.

Lehendakariak berak edo botere notariala duenak eskaera ez badute egiten, lehendakariak edo botere notariala duenak, baimena eman behar dio beste bati F0136a erabilita, eta horri erantsiko litzaioke aurreko puntuan aipatutako erregistroko agiriaren kopiaz gain, lehendakariaren edo botere notariala duen pertsonaren NANA.

Ez aritzeko baimenak ematen une oro, lehendakariak nahi badu, baimena eman dezake, adibidez udalaren aurrean edozein gestio egiteko 2019an, inprimakian hori adierazita.

Hau egiten badute, eskaneatu eskaerarekin batera eta itzuli egingo zaie, hurrengoan ere erabilitzeko.

Eskaera aurkezteak esan nahi du eskatzaileak edo entitate eskatzaileak oinarri hauetan eta espezifikoetan ezarritako baldintzak bere horretan onartzen dituela.

Ez da beste dokumentazio-motarik onartuko.

Eskatutako dokumenturen bat jadanik Bergarako Udalaren esku balego, diru-laguntzaren eskatzaileak ez du dokumentu hori aurkeztu beharrik izango, betiere eskaeran adierazten bada zein egunetan aurkeztu zen eta zein organori edo zein bulegotan izan zen, eta ez badira bost urte baino gehiago igaro zegoen prozedura bukatu zenetik (eskaera orrian adierazi beharko du).

Hala ere, dokumentua lortzeko ezintasun materiala balego, organo eskudunak dokumentua erabaki-proposamenaren formulazioa baino lehen aurkezteko eska dezake.

#### 8. artikulua.

Eskabideak edo harekin batera doan nahitaezko dokumentazioak akatsen bat duenean edo osatu barik dagoenean, 10 eguneko epea izango dute interesdunek antzemandako akatsak zuzentzeko, udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Emandako epea akatsak zuzendu barik igarotzen bada, diru-laguntza eskabidean atzera egin duela ulertuko da, eta beste izapidetik gabe artxibatu egingo da.

### V. ERABAKIA

#### 9. artikulua.

Laguntza-programaren arabera, dagokion departamentuak edo udal arloak izango du aurkeztutako eskabideak tramitatze-ko ardura; beraz, sail horien esku egongo da, beren eskumenen eremuan, proiektuak aztertu eta ebaluatzeko erantzukizuna.

– Declaración jurada de la persona física o jurídica solicitante del cumplimiento de la Ley Vasca 4/2005 para la igualdad de mujeres y hombres, y de la Ley Orgánica 3/2007 para la igualdad efectiva de hombres y mujeres, y que no ha sido sancionado ni administrativa ni penalmente por actos de discriminación sexual. En el caso de las personas jurídicas, tal declaración deberá de ser suscrita por su representante legal y hacerlo extensivo a los órganos directivos de la misma.

– En caso de que la solicitante sea una asociación, la representación legal de una asociación la ostenta su presidente, que es quien debería presentar las solicitudes, en cuyo caso no sería necesario presentar el impreso F0136. Sí que se debe presentar el documento del Registro de Asociaciones donde conste que esta persona es quien ostenta la presidencia.

El/La presidente puede otorgar poder notarial a favor de otra persona, en cuyo caso esta debería presentarlo.

Si la solicitud no la realiza el/la presidente ni la persona con poder notarial, uno/a u otra deberán conceder autorización a una tercera persona mediante el impreso F0136, al que se deberá adjuntar una copia del documento del registro citado en el punto anterior, además del DNI de la persona que ostenta la presidencia o cuenta con poder notarial.

A fin de no tener que estar otorgando continuamente estas autorizaciones, la persona que ostenta la presidencia, si así lo considera y lo hace constar en el impreso, podrá conceder autorización para, por ejemplo, realizar cualquier gestión ante el ayuntamiento en el 2019.

De hacerlo así, el impreso se escaneará junto con la solicitud y se le devolverá a fin de que lo pueda utilizar en la siguiente ocasión.

La presentación de la solicitud implica la aceptación íntegra por parte de la persona o entidad solicitante de las condiciones establecidas en las presentes bases y en las bases específicas.

No se aceptará otro tipo de documentación.

Si alguno de los documentos requeridos obrara ya en poder del Ayuntamiento de Bergara, la solicitante no estará obligada a presentarlo, siempre que indique en la solicitud cuándo se presentó y a qué órgano o en qué dependencia, y siempre que no hayan transcurrido más de cinco años desde el final del procedimiento (deberá hacerlo constar en el impreso de solicitud).

Con todo, en caso de resultar materialmente imposible la obtención del documento, antes de la formulación de la propuesta de resolución el órgano competente podrá requerir la presentación del mismo.

#### Artículo 8.

Cuando la solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña adolezca de algún error o sea incompleta, se otorgará a las personas interesadas un plazo de diez días, contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento por parte del ayuntamiento, a fin de que puedan subsanar los errores detectados.

Transcurrido el plazo concedido sin haber subsanado los errores, se tendrá por desistida la solicitud de subvención, que será archivada sin más trámite.

### V. RESOLUCIÓN

#### Artículo 9.

La tramitación de las solicitudes presentadas corresponderá, por razón del programa de ayudas que se trate, a los diferentes departamentos o áreas municipales, que serán los encargados del examen y evaluación de los proyectos, dentro del ámbito de sus competencias.

#### 10. artikulua.

Zerbitzu teknikoek txostena egin ondoren, gai horretan eskumena duen batzordeburuak, dagokion batzordeak irizpena eman ondoren -hala badagokio-, onartzeko akordio-proposamena egingo dio organo eskudunari.

Alkatea izango da laguntzak edo diru-laguntzak emateko organo eskuduna.

#### 11. artikulua.

Laguntza edo diru-laguntza emateko edo ez emateko erabakia arrazoitu egin beharko da, eta, edozelan ere, erabakia deialdiaren oinarri-arauetan jasotako irizpide objektiboen arabera hartu dela egiaztatu beharko da.

Eskatzaileari jakinaraziko zaion erabakian, berariaz ageruko dira xedea, diru-laguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda, zenbat emango zaien, nola ordainduko zaien, nola justifikatu behar duten eta baita oinarri-arau orokor hauetan, dagozkion oinarri espezifikoetan edo diru-laguntza ematen den uean indarrean dauden arauetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betebeharrak ere. Halaber, berariaz adieraziko da onartu ez diren edo ukatu diren eskabideen zerrenda.

Era berean, horren aurka jarri daitezkeen errekursoak azalduko dira udal erabakian, bai eta zein organo judizialean aurkeztu behar diren eta horiek jartzeko epea ere; horrek ez du esan nahi, ordea, interesdunek komenigarritzat jotzen duten beste edozein errekurso ere jarri ahal izango ez dutenik.

Orobat, diru-laguntzak emateko akordioetan 10 egun balioduneko epea emango zaie onuradunei, onartu dutela adierazi dezaten. Horretarako emandako epean besterik adierazten ez badute, ulertuko da inplizituki onartu dutela.

#### 12. artikulua.

Erabakiak hartu eta jakinarazteko gehieneko epea 2 hilekoa izango da, deialdi honetan eskabideak aurkezteko adierazten den epea bukatzen denetik zenbatzen hasita, laguntza programa espezifikoak ez badu besterik esaten. Artikulu honetan xedatutako epeari dagokionez, abuztua hilabete baliogabetzat hartuko da. Epe hori berariazko erabakirik eman gabe igarotzen bada, eskabidea ez dela onartu ulertuko da.

Emandako diru-laguntza guztien publikitatea egingo du udalak, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 18. artikuluan xedatzen denez.

### VI. ONURADUNEN OBLIGAZIOAK

#### 13. artikulua.

Diru-laguntza emanez gero, oinarri-arau espezifikoetan jasotako gain, hauek ere entitate edo pertsona onuradunaren betebeharrak izango dira:

- Helburua betetzea, proiektua betearaztea, ekintza gauzatzea edo diru-laguntza ematea oinarritzen duen jokabidea hartzea.
- Diru-laguntza eman duen organoari honako hauek justifikatzea: betebeharrak eta baldintzak bete izana, ekintza gauzatu izana eta diru-laguntza jaso edo erabiltzearen helburua bete izana.
- Diru-laguntza ematen duen organoak eta eskuduntza izendaturik duten estatuko nahiz erkidegoko kontrol-organoei egin ditzaketen egiaztatze-jardunak eta finantza-kontrolak onartzea; bai eta aurreko jardunak burutzeko errekeritutako informazioa ematea ere.
- Diru-laguntza eman duen organoari jakinaraztea diru lagundutako ekintzak finantzatzen dituzten beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo bitarteko batzuk lortu izana. Jakina-

#### Artículo 10.

Una vez emitido informe por los servicios técnicos, la Presidencia de la Comisión Informativa competente por razón de la materia, previo dictamen -en su caso- de ésta, elevará la propuesta de acuerdo al órgano competente para su aprobación.

El órgano competente para la concesión de ayudas y subvenciones será Alcaldía.

#### Artículo 11.

La resolución de concesión o denegación de la ayuda o subvención deberá ser motivada, y, en todo caso, deberá quedar acreditado que la misma se ha adoptado en función de los criterios objetivos establecidos en las bases de la convocatoria.

En la resolución, que se notificará a la persona solicitante, se hará constar expresamente el objeto, la relación de solicitantes a quienes se concede subvención, su cuantía, la forma de pago, forma de justificación y demás condiciones y requisitos exigidos en estas bases generales, en las bases específicas correspondientes o en la normativa vigente en el momento de su concesión. Así mismo, se indicará de manera expresa la relación de solicitudes que han sido desestimadas o rechazadas.

Igualmente, en la resolución municipal se indicarán los recursos que contra la misma procedan, así como el órgano judicial ante el que hubieran de presentarse y el plazo para interponerlos, sin perjuicio de que las personas o entidades interesadas puedan presentar cualquier otro que estimen conveniente.

Así mismo, en los acuerdos de concesión de subvenciones se otorgará a las beneficiarias un plazo de 10 días hábiles al objeto de que manifiesten su aceptación. Una vez vencido el plazo concedido sin que se haya manifestado oposición, se entenderá implícitamente que la subvención ha sido aceptada.

#### Artículo 12.

El plazo máximo para dictar y notificar las resoluciones correspondientes será de 2 meses, contados a partir de la finalización del plazo de presentación de solicitudes indicado en la presente convocatoria, salvo que el programa específico de ayudas lo establezca de otro modo. A efectos del plazo establecido en el presente artículo, el mes de agosto se considerará inhábil. Transcurrido el plazo sin que se haya dictado resolución expresa, se entenderá que la solicitud ha sido desestimada.

El ayuntamiento dará publicidad a todas las subvenciones concedidas, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 18 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

### VI. OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS O ENTIDADES BENEFICIARIAS

#### Artículo 13.

En caso de concesión de subvención, además de las obligaciones recogidas en sus bases específicas, constituirán obligaciones de la persona o entidad beneficiaria las siguientes:

- Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.
- Justificar ante el órgano concedente el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determine la concesión o disfrute de la subvención.
- Someterse a las actuaciones de comprobación y control financiero por parte del órgano concedente, así como por otros órganos de control competentes, tanto estatales como autonómicos, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de dichas actuaciones.
- Comunicar al órgano concedente la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efec-

razpena, horien berri izan eta berehala egin beharko da, eta, edozelan ere, fondoei emandako erabilpena justifikatu baino lehen.

e) Arau espezifikoetan ez badago beste zeozer zehaztuta, Ogasunekiko betebeharetan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotearen ziurtagiriak. Halaber, Bergarako Udalarekin inongo motatako zorrik ez izatea eta betebeharrak fiskaletan, zergatan eta zergaz aparte tasetan eta prezio publikoen ordainetan egunean egotearen ziurtagiria.

f) Jasotako fondoak zertan erabili diren egiaztatzeko dokumentuak gordetzea, gutxienez bost urtez, bai eta dokumentu elektronikoa ere, egiaztatze eta kontrol jardunak burutu daitezken.

g) Neurriak hartzea diruz lagundutako ekintzen berri emateko, eta horietan adierazi beharko da Bergarako Udalak diruz lagundu duela.

Ateratako eskuorri, kartel, sare sozialetan edo bestelako publizitate euskarrietan, Bergarako Udalak diruz lagundu duela adierazi beharko da. Halaber, aurkezpen edo prentsaurrekoak egiten baditu, Bergarako Udalarik gonbidapena egingo dio.

Gainera, baldintza hauek bete beharko dituzte:

– Euskararen erabilerearen inguruan: Diru-laguntza hauek jasotzeko ezinbestekoa izango da, gutxienez, euskara erabiltzea ekitaldi eta idatzizko komunikazio publikoetan: iragarki, ohar eta abar.

Ahozko komunikazioetan, bi hizkuntzak erabiliz gero, euskari emango zaio lehentasuna, euskarazko aurkezpena erdarazkoaren aurretik eginez.

Era berean, idatzizko komunikazio elebidunetan ere, euskari emango zaio lehentasuna, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa erdarazkoaren gainean), bai neurriaren aldetik. Testuak, hizkuntza aldetik, zuzen idatziak daudela egiaztatzeko, Euskara Zerbitzura eraman ahalko dira.

Antolatzen dituzten jarduerak (ikastaro, hitzaldi, entrenamendu eta era guztietako ekitaldiak...) euskaraz izatea bultzatuko da, bereziki gazteei bideratuak direnean, eskolako irakas-kuntzaren osagarri izan daitezzen.

– Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruz:

1. Bete egin beharko ditu Euskadiko 4/2005 Legea –Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa– eta 3/2007 Lege Organikoa –Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriakoa–.

2. Udalak markatutako irizpideak jarraitu beharko ditu elkar-teak. Beraz, Jarduera, proiektu edo programarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez da erabiliko ez hizkera ez irudi sexistarik, estereotipo eta rolak alde batera utziz. Era berean, ezingo da diskriminatu sexu-arrazoiengatik. Eta emakumeen presentzia eta parte hartzea eremu guztietan ahalbidetuko da (zuzendaritzan, bazkideen artean, erabiltzaileen artean eta abarretan).

Edozein sari-mota emateko sortzen diren hautaketa-epaimahaietan trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua bermatuko da. Ordezkariak orekatua izango da lau kide baino gehiago dituzten epaimahaietan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkariak izatea.

– Adikzioen prebentzioari dagokienez, diru-laguntza hauek jasotzeko ezinbestekoa izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen 1/2016 legeak edari alkoholduen publizitatea, sustapena, banatzea eta kontsumoa mugatzeko neurriak betezea, bereziki bere jarduna adingabeei zuzendutakoa denean. Horrelako neurriak ere hartu beharko dira tabakoaren adikzioa prebenitzeko.

tuarse tan pronto como se conozca el hecho y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos.

e) Si las bases específicas no disponen otra cosa, certificados de hallarse al corriente en sus obligaciones respecto a Hacienda y la Seguridad Social. Así mismo, certificación de no tener pendiente ningún tipo de deuda con el Ayuntamiento de Bergara y hallarse al corriente en el pago de sus obligaciones fiscales, impuestos, tasas y precios públicos.

f) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, por un mínimo de cinco años, para posibilitar las actuaciones de comprobación y control.

g) Adoptar las medidas de difusión de la actividad subvencionada, en las que se haga constar la colaboración, mediante subvención, del Ayuntamiento de Bergara.

En todos los folletos que se editen, carteles, redes sociales o cualquier otro soporte publicitario, se deberá señalar que ha sido subvencionado por el Ayuntamiento de Bergara. Así mismo, en caso de que realice una presentación o rueda de prensa, deberá invitar al Ayuntamiento de Bergara.

Además, deberán cumplir las condiciones siguientes:

– Respecto a la utilización del euskera: Para recibir estas ayudas económicas, se establece como condición indispensable la utilización de, al menos, el euskera en todos los actos públicos y comunicaciones públicas escritas: anuncios, notas, etc.

En las comunicaciones orales, en caso de utilizarse ambos idiomas, se dará preferencia al euskera, efectuando la exposición primeramente en dicha lengua.

Así mismo, en las comunicaciones escritas bilingües se dará preferencia al euskera, tanto en su ubicación (situando el texto en euskera en la parte superior) como en el tamaño de los caracteres. Con la finalidad de garantizar la corrección lingüística de los textos en euskera éstos podrán ser trasladados al Servicio de Euskera para su revisión.

En las actividades organizadas (cursillos, conferencias, entrenamientos o eventos de todo tipo...) se fomentará la utilización del euskera, sobre todo en las dirigidas a jóvenes, al objeto de que complementen la labor de los centros educativos.

– Respecto a la igualdad de mujeres y hombres:

1. Deberá de cumplir la Ley Vasca 4/2005 para la igualdad de mujeres y hombres, y la Ley Orgánica 3/2007 para la igualdad efectiva de hombres y mujeres.

2. Seguir los criterios marcados por el Ayuntamiento. Así, en los anuncios y comunicaciones relativos a la actividad, proyecto o programa, no se utilizarán lenguaje o imágenes sexistas, evitando los estereotipos y roles. Del mismo modo, no se permitirá la discriminación por motivos de sexo. Además se facilitará la presencia y participación de las mujeres en todos los ámbitos (en las directivas, como socias, usuarias, etc.).

En los tribunales de selección para la concesión de cualquier tipo de premios, se garantizará una representación equilibrada de mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuada. Se considerará que existe una representación equilibrada cuando en los tribunales de más de cuatro miembros cada sexo esté representado al menos al 40 %.

– Respecto a la prevención de adicciones, para la obtención de estas subvenciones será imprescindible dar cumplimiento a las medidas establecidas por la Ley 1/2016 de Adicciones de la CAV para la limitación de la publicidad, promoción, suministro, venta y consumo de bebidas alcohólicas, especialmente cuando se trate de actividades dirigidas a menores de edad. Deberán de adoptarse las mismas medidas para la prevención de la adicción al tabaco.

h) Jasotako fondoak itzultzea oinarri hauetan aurreikusitako kasuetan edota indarrean dagoen gainontzeko legediak jasotzen dituen kasuetan.

i) Diruz lagundutako jarduera garatzeko behar beste baimen lortzea, eta baimenon xedapenak betetzea.

j) Jardueraren garapenari buruzko informazioa ematea, udalaren eta erakunde autonomoaren aldetik jarraipena egin edo laguntzeko.

k) Diru-laguntza emateko kontuan hartu den edozein gora-behera aldatuz gero, diru-laguntza eman duen organoari jakinaraztea.

l) Dagozkion neurriak hartzea, dirulaguntza-jasotzaileak antola ditzakeen jarduera edo ikastaro guztietan -betiere bertan adingabekoek parte hartzen badute eta udalak diruz lagundu baditu- bete daitezen 1/1996 Lege Organikoak ezarritakoa -urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa, Adingabeen Babes Juridikoari buruzkoa- eta 26/2015 Lege Organikoak ezarritako -uztailaren 28ko 26/2015, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema Aldatzen duena-; eta horretaz gain, jarduera horiek gauzatu behar dituztenei buruz Sexu-delitugileen Erregistro Nagusiaren ziurtagiri negatiboa aurkezteko derrigortzea.

## VII. ESKABIDEAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

### 14. artikulua.

Eskabideak baloratzeko laguntza-programa bakoitzaren oinarri-arau espezifikoetan (oinarri hauen eranskin bezala doazena) jasotako irizpideak aplikatuko dira.

## VIII. DIRUZ LAGUNTZEKO GASTU-KONTZEPTUAK

### 15. artikulua.

1. Diruz laguntzeko gastutzat joko dira diruz lagundutako ekintzaren edo proiektuaren izaerari erantzuteaz gain, diru-laguntzak arautzeko oinarriek ezarritako epean egin direnak.

Diru-laguntzak emateko deialdia arautzeko arau espezifikoek besterik xedatzen ez badute, ulertuko da gastuak egiteko epea (faktura sortzea eta fakturaren eguna), oro har, urte naturalarekin bukatuko dela, hau da, abenduaren 31n; edo, noizean behingo ekintzen eta ekintza berezien kasuan, dagokion udal akordioan zehazten den justifikazio-epea bukatu baino lehen.

Halaber, gastu bat diruz laguntzeko, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan xedatutakoa bete behar da, bai azpikontratatzeko eskatutako baldintzak bai legezko testu beraren 31. artikuluan ezarritakoa.

2. Honako gastu hauek ez dira diruz lagunduko:

– Fakturatzat edo legezko baliadun agiritzat hartu ezin diren gastuen agiriak eta bestelako dokumentuak.

– Bazkari, afari edo ostalaritzako bestelako kostuak, diruz lagundutako ekintzan parte hartu duten pertsonen sortutakoak izan ezik; halakoetan, egindako gastuaren eta lortu nahi den helburuaren arteko proportzionaltasuna gorde beharko da. Dena den, eta salbuespen gisa, udalak, dagokion akordioaren bidez, gastu-kontzeptu hori egiteko berariazko baimena eman ahal izango du.

h) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en las presentes bases o en el resto de la legislación vigente.

i) Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para el desarrollo de la actividad subvencionada, y cumplir sus determinaciones.

j) Facilitar información sobre el desarrollo de la actividad, de cara al seguimiento y posible colaboración por parte del ayuntamiento u organismo autónomo.

k) Comunicar al órgano concedente la modificación de cualquier circunstancia que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

l) Tomar las medidas necesarias para que en cualquier actividad o curso que organizado por la entidad solicitante de la subvención en el que puedan participar menores de edad, y que haya sido subvencionado por el Ayuntamiento, se cumpla lo establecido por la Ley Orgánica 1/1996, de 15 de enero, de Protección Jurídica del Menor y de la Ley Orgánica 26/2015, de 28 de julio, de modificación del sistema de protección a la infancia y a la adolescencia, y exigir la presentación del certificado negativo del Registro Central de Delincuentes Sexuales a quienes vayan a llevar acabo las mismas.

## VII. CRITERIOS DE VALORACIÓN DE LAS SOLICITUDES

### Artículo 14.

Para la valoración de las solicitudes, serán de aplicación los criterios que figuran en las bases específicas de cada programa de ayudas (que se adjuntan como anexo a las presentes).

## VIII. CONCEPTOS DE GASTO SUBVENCIONABLES

### Artículo 15.

1. Se consideran gastos subvencionables aquellos que, además de responder a la naturaleza de actividad o proyecto objeto de subvención, se realicen en el plazo establecido por las diferentes bases reguladoras de las subvenciones.

Si las bases específicas reguladoras de la convocatoria de concesión de subvenciones no disponen otra cosa, se entenderá que el plazo para la realización de los gastos (devengo y fecha de la factura) termina con carácter general con el fin de año natural, es decir, a 31 de diciembre, o en caso de actividades puntuales, con anterioridad a la finalización del plazo de justificación determinado en el correspondiente acuerdo municipal.

Así mismo, para que un gasto sea considerado subvencionable deberá cumplirse lo dispuesto en el artículo 29 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, en relación con los requisitos exigibles para la subcontratación, así como a lo establecido en el artículo 31 del mismo texto legal.

2. No se admitirán como gastos subvencionables:

– Notas de gastos u otros documentos que no reúnan los requisitos reglamentariamente exigibles para ser considerados facturas o justificantes con validez legal.

– Costes de comidas, cenas u otros propios de servicios de hostelería, salvo los originados con relación a los propios participantes de la actividad subvencionada, que deberán guardar, en todo caso, la oportuna proporcionalidad entre el gasto realizado y el objetivo perseguido. No obstante, y con carácter excepcional, el ayuntamiento podrá autorizar expresamente, a través del oportuno acuerdo, dicho concepto de gasto.

IX. EMAN BEHARREKO DIRU-LAGUNTZEN GEHIENEN  
ZENBATEKOA ETA DIRU-KOPURU HORREN IZAERA

16. artikulua.

Udalak 2019eko ekitaldirako onartu dituen aurrekontu-kopuruen arabera eta batzorde informatzaileek programa desberdinetarako esleitutakoaren arabera, deialdi honetan jasotako laguntzetarako gehieneko diru-kopurua 288.120 euro da (gerora gehitu edo handitu egin daiteke kopuru hori).

Deialdi honen oinarri-arauetan zehazten da zer diru-kopuru esleitu zaion programa bakoitzari, bai eta handitu daitekeen edo ez.

Edozelan ere, oro har, eta oinarri-arau espezifikoetan kontrarik xedatu ezean, aurrekontu-kopuru horrek muga-izaera izango du eta ezin izango da handitu ekitaldian bertan.

X. ALDI BEREAN BESTE LAGUNTZA BATZUK JASOTZEKO  
AUKERA ETA FINANTZAKETA-MUGAK

17. artikulua.

Oro har, eta laguntza-programa bakoitzaren oinarri-arauek kontrarik xedatu ezean, onartu egiten da udal diru-laguntza eta beste finantza-bide batzuk aldi berean eta batera eskuratzeko aukera. Finantza-bide horiek izan daitezke bai beste administrazio batzuetatik, partikularretatik edo abarretik jasotako diru-laguntzak, bai garatu nahi den proiektu edo jarduera finantzatzeko ezarritako ekarpenak edo kuotak.

18. artikulua.

Diru-laguntza honetaz gainera beste finantza-bide batzuk lortuz gero, eta oinarri-arau espezifikoek bestelakorik ezarri ezean, finantzaketa-muga egindako gastuaren % 100a izango da, hau da, udalaren diru-laguntzarekin ezin izango da inondik ere gain-finantzaketarik egon, salbuespen honekin:

Diruz lagundutako programa edo ekintza bat eskatutako urtean gauzatu ezinez gero, urtea amaitu aurretik idatziz eta beharrezko justifikazioarekin luzapena eskatu ahal izango da, betiere hurrengo urtean gauzatu beharrezkin eta diru-itzulketarik egon beharrik gabe.

Horri dagokionez, eta diru-laguntzak emateko udal akordioetan berariaz bestelako doitze edo erregularizazio sistemarik adierazten ez bada, udalak, diru-laguntzaren bukaerako ordainketa edo likidazioa egiterakoan, gain-finantzaketarik gerta ez dadin, zuzendu egingo du ordaindu beharreko kopurua, benetan izandako gastuen eta diru-sarreraren arabera, eta, hala bada, gorkio, gerta daiteke ordaindutako aurrerakinaren zati bat edo aurrerakin osoa itzuli behar izatea onuradunak, edo berari itzuli behar izatea, betiere lehen aipatutako salbuespeneko baldintzak ez baditu betetzen.

XI. DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEKO MODUA ETA EPEAK.  
AURRERAKINAK IZATEKO AUKERA

19. artikulua.

Diru-laguntza zertarako eman zen eta helburu hori bete izana justifikatu eta gero ordainduko du udalak diru-laguntza. Horretarako, aurrekontuan jasotako eta organo eskudunek onartutako kopuruak eta portzentajeak hartuko ditu erreferentziatzat. Diru-laguntza entitate titular eskatzaileari ordainduko zaio, eskabide-ereduan hark emandako datuen arabera.

IX. IMPORTE MÁXIMO DE SUBVENCIONES A CONCEDER Y  
CARÁCTER DE DICHA DOTACIÓN

Artículo 16.

De conformidad con las dotaciones presupuestarias aprobadas por el ayuntamiento para el ejercicio de 2019, y con las asignaciones para los distintos programas efectuadas por las diferentes comisiones informativas, la cantidad máxima destinada a las ayudas contempladas en la presente convocatoria es de 288.120 euros (sin perjuicio de que posteriormente pueda ser objeto de suplemento o ampliación).

En las bases de la presente convocatoria se concreta la dotación económica destinada a cada programa, así como el carácter ampliable o no de la misma.

No obstante, con carácter general, y salvo que en las bases específicas se disponga lo contrario, dicha dotación tendrá carácter limitativo y no será susceptible de ampliación dentro del ejercicio.

X. POSIBILIDAD DE CONCURRENCIA CON OTRAS AYUDAS Y  
LÍMITES DE FINANCIACIÓN

Artículo 17.

Con carácter general, y salvo que las bases de cada programa de ayudas disponga lo contrario, se admite la posibilidad de concurrencia o compatibilidad de percepción de la subvención municipal con otras fuentes de financiación, bien sean ingresos por subvenciones procedentes de otras administraciones, de particulares, etc., o se trate de aportaciones o cuotas fijadas para la financiación del proyecto o actividad que pretende llevarse a cabo.

Artículo 18.

En caso de concurrencia de esta subvención con otras fuentes de financiación, y salvo que las bases específicas establezcan otra regulación, el límite de financiación queda establecido en el 100 % del gasto producido, esto es, nunca podrá haber sobrefinanciación con ayuda económica del ayuntamiento, exceptuando la siguiente salvedad:

Si en el año para el que se solicitó no fuera posible llevar a cabo el programa o actividad que haya sido objeto de subvención, se podrá solicitar su prórroga, por escrito y justificándolo adecuadamente, con la obligación de llevarlo a cabo el año siguiente y sin tener que devolver el importe.

A este respecto, y salvo que en los acuerdos municipales de concesión de subvenciones no se indique expresamente otro sistema de ajuste o regularización, en el pago final o liquidación de la subvención a realizar por el ayuntamiento a la vista de los gastos e ingresos realmente producidos, se efectuará la oportuna rectificación del importe a abonar, al objeto de que dicha sobrefinanciación no tenga lugar, de modo que puede suceder que la beneficiaria esté obligada a devolver parte o la totalidad del anticipo recibido, o se le haya de efectuar un reintegro; siempre que no cumpla las condiciones de exención antes citadas.

XI. FORMA Y PLAZOS DE ABONO DE LA SUBVENCIÓN.  
POSIBILIDAD DE ANTICIPOS

Artículo 19.

El abono de la subvención se realizará previa justificación del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió, tomando como referencia las cuantías y los porcentajes recogidos en el presupuesto y aprobados por los órganos competentes, y se librará a la entidad titular solicitante de la misma, de conformidad con los datos facilitados por ésta en el modelo de solicitud presentado.



## 20. artikulua.

Diru-laguntza ordaintzeko, kontuan hartuko dira diruz lagundutako jardueraren edo programaren ezaugarriak eta finantza-beharrak.

Oro har eta oinarri-arau espezifikoetan ordaintzeko beste era bat aurreikusten ez bada, konturako aurrerakinez ordaindu ahal izango da, eta oinarri-arau espezifikoetan beste kopururik adierazten ez bada, ordainketak honela egingo dira:

– Onartutako kopuruaren % 60, justifikatu beharreko aurrekin gisara, onuradunak diru-laguntza onartutakoan eta gehiezin ere hilabeteko epean, akordioa hartzen den egunetik zenbatzen hasita; diru-laguntza 3.000 eurotik gorakoa bada, hartzarena sinatzen denetik hilabete bateko epean.

– Gainerako % 40, organo eskudunak diru-laguntzaren likidazioa onartutakoan, hau da, diruz lagundutako programa edo jardueraren dokumentazio eta justifikazio osoa eta zuzena entregatu eta gero.

Aurkeztutako likidazioa hasierako gastu-aurrekontua baino txikiagoa bada, oinarri-arau espezifikoek beste arauketarik xedatu ezean, diru-laguntza gutxitu egingo da koefiziente zuzentzaile bat aplikatuz. Koefiziente hori benetan erabilitako kopuruaren portzentajea izango da, hasieran eskatu eta onartutako kopuruarekiko.

## XII. DIRU-LAGUNTZA ZERTARAKO DEN JUSTIFIKATZEKO EPEAK ETA MODUAK

### 21. artikulua.

1. Diru-laguntzen onuradunek nahitaez justifikatu beharko dute jasotako dirua diru-laguntza ematearen oinarrian zegoen helbururako erabili dutela.

2. Diru-laguntzaren justifikazioa, orokorrean, justifikazio-kontu sinplifikatuaren bidez egingo da (VIII. eranskina), betiere gutxienezko baldintzak betez gero.

Justifikazio-kontuak, orokorrean, honako dokumentazio hau jasoko du:

a) Jarduketa-memoria bat; bertan, honako hauek jaso beharko direlarik:

- 1.— Zenbat ekintza garatu diren.
- 2.— Zenbat herritarrengan heldu den diru-laguntza (zenbatekoa sexuaren arabera bereiztuta).
- 3.— Zenbat pertsonak hartu duten parte zuzenean ekintzetan (zenbatekoa sexuaren arabera bereiztuta).
- 4.— Zein hizkuntza erabili den jardueren garapenean.
- 5.— Lortutako helburuen justifikazioa.
- 6.— Zein jarduketa egin diren jardun-eremu ezberdinetan emakumeen partaidetza handiagoa izatea lortu ahal izateko.
- 7.— Zein jarduketa egin diren ekologia eta ingurumen aldeko balio iraunkorrak sustatzeko.

8.— Egin diren jarduketak edari alkoholodunen publizitatea, sustapena, banatzea eta kontsumoa mugatzeko neurriak bete dituela, bereziki bere jarduna adingabeei zuzendutakoa izan bada (esponsorretan, publizitatean edari alkoholodun ez egotea, egiten diren ekintzetan ez dala alkohol kontsumoa tarteko egon, ikasturte amaieran egiten diren afari eta barretan adinez txikiak direnekin, adinez txikiak alkoholik ez kontsumitzea).

b) Jarduerako gastuen zerrenda sailkatu bat, onuradunak edo ordezkariak sinatutakoa, eta aitorzailearen identifikazioarekin; bertan datu hauek jasoko dira:

## Artículo 20.

Para el pago de la subvención se tendrán en cuenta las características y necesidades financieras derivadas de la actividad o programa subvencionado.

Con carácter general, salvo que en las bases específicas se señale otra forma de pago, se admite la posibilidad de pago de anticipos a cuenta, y salvo que en las bases específicas se indiquen otras cantidades, se procederá al abono de la siguiente forma:

– 60 % de la cantidad aprobada, en concepto de anticipo a justificar, una vez aceptada por la beneficiaria la subvención concedida y en el plazo máximo de un mes contado a partir de la adopción del acuerdo correspondiente; en el caso de subvenciones superiores a 3.000 euros, en el plazo de un mes a partir de la firma del convenio.

– 40 % restante, una vez aprobada por el órgano competente la liquidación de la subvención, esto es, con posterioridad a la entrega de la documentación y justificación completa y correcta del programa o actividad subvencionada.

En el supuesto de que la liquidación presentada fuera por importe inferior al presupuesto de gastos inicialmente presentado, y siempre que las bases específicas no dispongan otra regulación, la subvención se minorará mediante la aplicación de un coeficiente corrector, equivalente al porcentaje de la cuantía efectivamente utilizada respecto a la inicialmente solicitada y aprobada.

## XII. PLAZOS Y FORMAS DE JUSTIFICACIÓN DEL DESTINO DE LA SUBVENCIÓN

### Artículo 21.

1. Las personas o entidades beneficiarias de las subvenciones estarán obligadas a justificar que los fondos percibidos se han destinado a la finalidad que determinó la concesión de la subvención.

2. La justificación de la subvención, en general, se realizará mediante la cuenta justificativa simplificada (anexo VIII), siempre que se cumplan los requisitos necesarios.

La cuenta justificativa contendrá, con carácter general, la siguiente documentación:

a) Una memoria de actuación justificativa, que deberá recoger lo siguiente:

- 1.— El número de acciones desarrolladas.
- 2.— Número de ciudadanos a los que alcanza la subvención (cifras separadas por sexos).
- 3.— Número de participantes directos en las actividades (cifras separadas por sexos).
- 4.— Idioma del desarrollo de las actividades.
- 5.— Justificación de los objetivos alcanzados.
- 6.— Actuaciones que hayan redundado en una mayor participación de las mujeres en los diferentes ámbitos de actuación.
- 7.— Actuaciones realizadas para el fomento de valores ecológicos y medioambientales sostenibles.

8.— Que la actuación realizada ha cumplido las medidas que restringen la publicidad, fomento, distribución y consumo de bebidas alcohólicas, especialmente en caso de que la actividad haya estado destinada a menores de edad (no presencia de bebidas alcohólicas en la publicidad, entidades patrocinadoras; no existencia de consumo de alcohol en los actos celebrados; no existencia de consumo de alcohol por parte de las personas menores en las cenas de fin de curso o similares que se celebren con ellas).

b) Una relación clasificada de los gastos de la actividad, que vendrá firmada por el beneficiario o representante con identificación del declarante y contendrá:

- 1.— Hartzekoduna (NAN, IFK, izen-abizenak, helbide soziala balego).
- 2.— Dokumentuaren identifikazioa (faktura-zenbakia...).
- 3.— Fakturaren -edo pareko dokumentuaren- zenbatekoa.
- 4.— Fakturaren -edo pareko dokumentuaren- jaulkipen-data.
- 5.— Fakturaren -edo pareko dokumentuaren- ordainketa-data.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarreraren edo diru-laguntzen xehetasun-zerrenda, haien zenbatekoa eta jatorria adierazita. Bestelako diru-laguntzarik ez badute jaso, horrela adierazi beharko dute.

d) Diruz lagundutako jardueraren diru-sarreraren eta gastuen balantze bat, onuradunak edo entitateko ordezkariak sinatuta; sinatzailea identifikatuta gelditu behar da (NAN eta izen-abizenez).

e) Programatutako jarduerari buruzko dokumentazio grafikoa (kartelak, esku-programak, liburuxkak, banatutako idatzizko materiala, prentsa-oharrak, etab.).

f) Diru-laguntza aurrekontu bati lotuta eman bada, desberapenak zeintzuk izan diren, halakorik egon bada.

g) Diru-laguntza behar bezala erabili dela arrazoitzeko moduko ebidentzia izan ahal izateko, Bergarako Udalak egiaztapenak egingo ditu laginketa-tekniken bidez, hau da, eskatzaileek aurkeztu duten xehetasun-zerrendatik faktura bat edo batzuk bidaltzeko eskatuko die udalak.

#### 22. artikulua.

Aurreko artikuluan aipatutako guztia bete beharko da 2020ko urtarrilaren 31 baino lehen.

### XIII. OBLIGAZIOAK EZ BETETZEA. ITZULKETA-KASUAK ETA PROZEDURA

#### 23. artikulua.

1. Diru-laguntzen 38/2003 Legearen 36. artikuluan xedatutakoez gain, diru-laguntza emateko erabakiaren deuseztasun nahiz deuseztagarritasun kasuetan, bidezkoa izango da jasotako dirua itzularaztea eta berandutza-interesa eskatzea (diru-laguntza edo laguntza ordaindu den unetik aurrerakoa), ondorengo egoeraren bat gertatuz gero:

a) Jasotako fondoak zertarako erabili diren justifikatzeko obligazioa ez betetzea, edo behar beste ez justifikatzea, ezarritako eran eta epeetan.

b) Diru-laguntza eskuratu izana horretarako eskatutako baldintzak faltsutuz, edo diru-laguntza jasotzea galaraziko zuket baldintzak ezkutatuz.

c) Diru-laguntza ematerakoan onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.

d) Diru-laguntza emateko oinarri den xedea ez betetzea, osoki edo zati batean.

Horri dagokionez, eta udalak berariaz besterik erabaki ezean, diru-laguntza ematerakoan onartu ziren jarduera edo programen % 50 baino gutxiago gauzatu izana bete gabeko jarduera edo programatzat joko da.

e) Organo eskudunen kontrol-jarduerari uko egitea edo zotoak jartzea.

f) Laguntza edo diru-laguntza bakoitzaren oinarri espezifikoetan xedatutako gainerako kasuetan.

2. Diru-itzulketak udalak zehaztutako epeetan egin ezean, itzuli beharreko kopuruak premiamendu bidez ordainarazi daitezke.

- 1.— Acreedor/a (DNI, CIF, nombre-apellidos, razón social, en su caso).
- 2.— Identificación del documento (número de factura, ...).
- 3.— Importe de la factura o documento equivalente.
- 4.— Fecha de emisión de la factura o documento equivalente.
- 5.— Fecha de pago de la factura o documento equivalente.

c) Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia. En caso de no haber recibido ninguna otra subvención, deberán hacerlo constar así.

d) Un balance de ingresos y gastos de la actividad subvencionada, firmada por el beneficiario/a o representante de la entidad, identificado con su DNI y nombre y apellidos.

e) Documentación gráfica sobre las actividades programadas (carteles, programas de mano, folletos, material escrito distribuido, notas de prensa, etc.).

f) En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto, se indicarán las desviaciones acaecidas.

g) El Ayuntamiento de Bergara comprobará a través de las técnicas de muestreo, que se materializarán en la solicitud de una o varias facturas de la relación detallada presentada, a fin de obtener la evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención.

#### Artículo 22.

Se deberá cumplir todo lo indicado en el artículo anterior antes del 31 de enero de 2019.

### XIII. INCUMPLIMIENTO DE OBLIGACIONES. SUPUESTOS DE REINTEGRO Y PROCEDIMIENTO

#### Artículo 23.

1. Además de las previstas en el artículo 36 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, por razón de la nulidad o anulabilidad de la resolución de concesión, procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora desde el momento de la ayuda o subvención, cuando concurra alguna de las circunstancias siguientes:

a) Incumplimiento de la obligación de justificación, o justificación insuficiente, del destino de los fondos percibidos, en la forma y plazos establecidos.

b) Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquellas que lo hubieran impedido.

c) Incumplimiento de las condiciones impuestas a las beneficiarias con motivo de la concesión de la subvención.

d) Incumplimiento, total o parcial, de la finalidad para la que fue concedida la subvención.

A este respecto, y salvo acuerdo municipal expreso en otro sentido, se considera incumplimiento un nivel de ejecución inferior al 50 % de actividades o programas aprobados inicialmente para la concesión de la subvención.

e) La negativa u obstrucción a las actuaciones de control por los órganos competentes.

f) En los demás supuestos previstos en las bases específicas de cada ayuda o subvención.

2. Las cantidades a reintegrar podrán ser exigidas por la vía de apremio si el reintegro no se efectúa en los plazos determinados por el ayuntamiento.

#### 24. artikulua.

1. Diru-laguntza eman zuen organoak berak izango du eskumena jaso den zenbateko osoaren edo zati baten itzultzea exijitzeko akordioa hartzeko.
2. Diru-laguntza itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, laguntza edo diru-laguntza ematen duen organoak hala erabakita, hura izapidetzeko ardura duen administrazio-atalak txostena egin eta gero, edo bestela banakoren batek eskatuta edo salatuta.
3. Prozedura izapidetzerakoan bermatu egin beharko da, beti ere, interesdunari entzuteko eskubidea.
4. Emandako diru-laguntza osoa edo zati bat ez dela behar bezala erabili egiaztatuz gero, organo eskudunak ebazpen arrazoitua emango du, eta bertan argi adieraziko du zergatik itzuli behar den dirua, zenbat itzuli behar den, nola eta noizko, eta onuradunari ohartaraziko zaio dirua agindutako epean itzuli ezean premiamenduzko bideari ekingo zaiola.
5. Itzultzeko prozedurari arau-hauste administratibo baten ondorioz ekin bazaio, horren berri emango zaio organo eskudunari, dagokion zigor-prozedurari hasiera eman diezaion.

#### 25. artikulua.

1. Itzultzeko prozedura, diru-laguntzaren eskatzaile edo onuradun gisa agertzen diren pertsona fisiko edo juridikoen aurka zuzenduko da, edo pertsona fisiko edo juridikoz osatuta dauden baina nortasun juridikorik ez duten taldeetako kideen aurka.
2. Diru-laguntza gehi dagozkion berandutza-interesak itzultzeko erantzukizun solidarioa edo subsidiarioa erabakitzeko, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 40. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

### XIV. BERMEAK

#### 26. artikulua.

Oinarri-arau espezifikoek edo diru-laguntza emateko akordio zehatzek besterik xedatu ezean, ez da beharrezkotzat jotzen emandako laguntzengatik udalaren aldeko bermerik eskatzea.

### XV. OINARRI-ARAUEN INTERPRETAZIOA ETA ERREKURTSOAK

#### 27. artikulua.

Oinarri-arau hauek interpretatzerakoan sor daitezkeen zalantzak Alkateak erabakiko ditu, bera baita deialdi hau onartzeko eskumena duen organoa, dena delako Batzorde Informatzaileak, hala badagokio, alde zuzenetik programaren arabera txostena egin eta gero.

#### 28. artikulua.

Oinarri-arau hauek onartzeko akordioaren aurka, zeinak administrazio bidea amaitzen duen, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoren aurretik eta hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean Donostiako Administrazioarekiko Auzi Epaitegian, bi hileko epean. Aipatutako bi epeak oinarri-arau hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita zenbatuko dira.

Horrek guztiak ez du esan nahi, ordea, bidezkotzat jotzen den beste edozein egintza edo errekurtsu jarri ezingo denik.

#### Artículo 24.

1. La adopción de la resolución para exigir el reintegro –total o parcial del importe percibido será competencia del mismo órgano que haya concedido la subvención.
2. El procedimiento de reintegro de la subvención se iniciará de oficio, por acuerdo del órgano que concede las subvenciones, previo informe de la unidad administrativa responsable de su tramitación, o bien a instancia de parte o por denuncia.
3. En la tramitación del procedimiento se garantizará en todo caso el derecho de audiencia de la persona o entidad interesada.
4. Verificada la indebida aplicación total o parcial de la subvención concedida, el órgano competente dictará resolución que deberá ser motivada, incluyendo expresamente la causa o causas que originan la obligación del reintegro, así como la cuantificación del importe a devolver, y forma y plazo para reintegrarlo, advirtiendo de que, en el caso de no efectuar el reintegro en el plazo previsto, se procederá a su cobro por vía de apremio.
5. Si el procedimiento de reintegro se hubiera iniciado como consecuencia de hechos que pudieran ser constitutivos de infracción administrativa, se pondrán en conocimiento del órgano competente para la iniciación del procedimiento sancionador correspondiente.

#### Artículo 25.

1. El procedimiento de reintegro se dirigirá contra las personas físicas o jurídicas, o contra los miembros de las agrupaciones de personas físicas o jurídicas que no tengan personalidad jurídica, que figuren como solicitantes o beneficiarias/os de la subvención.
2. Para la determinación de la responsabilidad solidaria, o subsidiaria, según proceda, de la obligación de reintegro de la subvención más los correspondientes intereses de demora, se estará a lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

### XIV. GARANTÍAS

#### Artículo 26.

Salvo que las bases específicas o los acuerdos concretos de concesión de subvención dispongan lo contrario, no se considera necesaria la exigencia de garantías a favor del ayuntamiento por razón de las ayudas otorgadas.

### XV. INTERPRETACIÓN DE LAS BASES Y RECURSOS

#### Artículo 27.

Todas las cuestiones que pudieran surgir respecto de la interpretación de estas bases, serán resueltas por Alcaldía, al ser el órgano competente para la aprobación de esta convocatoria, previo informe –en su caso– de la Comisión Informativa correspondiente por razón del programa.

#### Artículo 28.

Contra el acuerdo de aprobación de las presentes bases, y que es definitivo en vía administrativa, se podrá interponer con carácter potestativo Recurso de Reposición previo al Contencioso-Administrativo, en el plazo de un mes, o bien interponer directamente Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados ambos plazos a partir del día siguiente al de la publicación de las presentes bases en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Y ello, sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que se estime procedente ejercitar.

ERANSKINAK

Eranskin hauetan, diru-laguntzak emateko eskumena duten sailei dagozkien oinarri-arau espezifikoak jasotzen dira.

I. eranskina. Gizarte Zerbitzuen Saila.

1.1. Garapenerako lankidetzak-programak lantzen dituzten Gobernu Kanpoko Erakundeei (GKE) diru-laguntzak emateko programa.

1.2. Gizarte-ekintzaren arloan diharduten elkarteei diru-laguntzak emateko programa.

1.3. Gazteendako alokairu sozialaren diru-laguntzak.

II. eranskina. Kultura Saila.

2.1. Kultura-entitateek egiten dituzten urteko jarduerak finantzatzeko laguntza programa.

III. eranskina. Kirol Zerbitzua.

3.1. Bergarako kirol entitateei ohiko eta ezohiko jarduerak finantzatzeko laguntza edo diru-laguntza programa.

IV. eranskina. Ingurumen Saila.

4.1. Ingurumen-entitateek egiten dituzten urteko jarduerak finantzatzeko laguntza programa.

V. eranskina. Ekonomia Sustapena.

5.1. Enpresa berrientzat lokala alokatzeko diru-laguntza.

5.2. Bergaran finkatuta dauden enpresak lehiakorragoak izateko azterlan teknologikoak egiteko bideratutako diru-laguntzak (Eragin programa).

VI. eranskina. Eskaera orria.

VII. eranskina. Udal izapideak egiteko baimena.

VIII. eranskina. Dirulaguntza ordaintzeko eskaera.

I. ERANSKINA

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

1.1. *Garapenerako lankidetzak-programak lantzen dituzten Gobernu Kanpoko Erakundeei (GKE) diru-laguntzak emateko arau espezifikoak.*

1. Xedea eta onuradunak.

Oinarri hauen xedea da 2019an Gobernu Kanpoko Erakundeei jarraian aipatzen diren bi eremuetako programak garatzeko diru-laguntzak emateko deialdia arautzea:

a) Bergarako herritarren artean munduko errealitatearen gainean kontzientzia kritikoa eta herrien arteko elkartasun kultura sustatzen duten sentsibilizazio eta lankidetzak ekintzak, Bergaran bertan egitekoak.

b) Garapen-bidean dauden herrialdeetako bizilagunen baldintza sozial, ekonomiko eta kulturalak hobetzeko helburua duten programak.

Legez eraturik dauden eta irabazi asmorik gabekoak diren Gobernu Kanpoko Erakundeek eska dezakete diru-laguntza. Beren ekintzek deialdi honen xedearekin bat egin behar dute eta Euskal Autonomi Erkidegoan edo Nafarroan errolatuta egon behar dira; eta egoitza soziala, ordezkari bat edo administrazio-egitura iraunkor bat Bergaran edo Debagoienan izan beharko dute.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira Estatu, Administrazio Autonomo, Foru Aldundi eta Aurrezki Entitateen baten menpeko erakundeak.

Parte hartzen duen GKE bakoitzak proiektu bakar bat aurkez dezake eremu bakoitzerako (a) eremurako bat eta b) eremurako beste bat).

ANEXOS

Estos anexos recogen las bases específicas correspondientes a cada una de las áreas competentes para otorgar subvenciones:

Anexo I. Departamento de Servicios Sociales.

1.1. Programa para concesión de subvenciones a Organizaciones No Gubernamentales (ONG) para la elaboración de programas de cooperación al desarrollo.

1.2. Programa para concesión de subvenciones a asociaciones que desarrollan sus actividades en el ámbito de la acción social.

1.3. Subvenciones de alquiler social para jóvenes.

Anexo II. Departamento de Cultura.

2.1. Programa de ayudas para la financiación de las actividades anuales desarrolladas por entidades culturales.

Anexo III. Servicio de Deportes.

3.1. Programa de ayudas y subvenciones para la financiación de las actividades ordinarias y extraordinarias de las entidades deportivas de Bergara.

Anexo IV. Departamento de Medio Ambiente.

4.1. Programa de ayudas para la financiación de las actividades anuales desarrolladas por entidades medioambientales.

Anexo V. Promoción Económica.

5.1. Ayudas a nuevas empresas para alquiler de local.

5.2. Subvenciones destinadas a la realización de estudios tecnológicos para la mejora de la competitividad de las empresas radicadas en Bergara (Programa Eragin).

Anexo VI. Solicitud de Subvención.

Anexo VII. Autorización para realizar trámites municipales.

Anexo VIII. Solicitud abono de subvención.

ANEXO I

DEPARTAMENTO DE SERVICIOS SOCIALES

1.1. *Programa para concesión de subvenciones a Organizaciones No Gubernamentales (ONG) para la elaboración de programas de cooperación al desarrollo.*

1. Objeto y entidades beneficiarias.

Constituye objeto de las presentes bases la regulación de la convocatoria de concesión de subvenciones a Organizaciones No Gubernamentales para el desarrollo de programas en el año 2019 dentro de las dos modalidades que a continuación se indican:

a) Actividades de sensibilización y cooperación, a realizar en Bergara, destinadas a fomentar en la población bergaresa la conciencia crítica sobre la realidad mundial y la cultura de la solidaridad entre los pueblos.

b) Programas destinados a mejorar las condiciones sociales, económicas y culturales de las personas en países en vías de desarrollo.

Podrán solicitar subvención las Organizaciones No Gubernamentales, sin ánimo de lucro, legalmente constituidas, cuya actividad se corresponda con el objeto de la presente convocatoria, estén inscritas en la Comunidad Autónoma Vasca o Navarra, y que tengan en Bergara o en Debagoiena (Alto Deba) su sede social, una delegación o una estructura administrativa permanente.

Quedarán excluidas de esta convocatoria las organizaciones dependientes del Estado, Administraciones Autónomas, Diputaciones Forales y entidades de ahorro.

Cada ONG participante podrá presentar un único proyecto a cada modalidad (uno en la modalidad a) y otro en la modalidad b)).

2. *Izapidetzeaz arduratzen den administrazio-unitatea.*

Gizarte Zerbitzuetako administrazio-unitateak izapidetuko ditu eskabideak.

3. *Aurkeztu behar den dokumentazioa.*

Oinarri orokorretako 7. artikuluan zehazten diren agiriak ekarri behar dira.

Jarduera-programari eta aurrekontuari dagokienez, arau espezifiko hauen gehigarrian jasotzen diren ereduak bete behar dira. Eta orri-kopurua mugatua izango da: a) kasurako 6 orrikoa, eta b) kasurako 10ekoa.

Eredu hauei ez bazaie jarraitzen, horrek laguntza-eskaera ez onartzea eragingo du. Halaber, ereduari jarraiturik ere, atal guztiak ez bada betetzen eta bertan proiektuak baloratzeko informazioa ez bada azaltzen, puntu horiek baloratu gabe geratuko dira.

4. *Eskabideak baloratzeko irizpideak.*

Diru-laguntzak banatzeko orduan, honako irizpideak hartuko dira kontuan:

A. Udalerrian bertan egingo diren sentsibilizazio edota lankidetzakintzetarako:

1. Erakunde eskatzailea, 20 puntu:

– Erakundearen esperientzia: azken hiru urteetan egindako esku-hartzeak (zer egin duten, non eta zein emaitza lortu duten). 5 puntu.

– Erakundeak Bergaran benetako presentzia duela erakusten du kide-kopuruarekin, publikora eskura dagoen ordezkari-tzarekin, pertsonal teknikoarekin, Bergaran gauzatutako ekintzekin eta Bergaran beste elkarteekin edo herriko ekintzetan elkarlanean. 8 puntu.

– Erakundeak duen misio, balore, helburu eta lan egiteko moduan erakusten du barneratuta dauzkala giza eskubideekin, ekologiarekin eta ingurumen iraunkorrarekin bat datozen balioak, baita genero-ikuspegia ere. 7 puntu.

2. Proiektua, 30 puntu:

– Proiektuak komunitatearen parte hartzea eta indartzea ahalbideratzen du: tokikoa eta globala lotu egiten dira, garapenari buruz jorratutako gaia eta gure gizarte bergarra nolabait harremanetan jartzeko ahalegina egiten baitu. 4 puntu.

– Proiektuak batez ere talde ahulenei eta /edo baztertuenei laguntzen die (haurrak, baserri eta/edo hiri inguru zapalduetako biztanleak, gatazka ingurukoak, errefuxiatuak, beren bizitokitik beste toki batera aldatutakoak edo itzultitakoak, etniagatik edo gizarte eta ekonomia kontuengatik baztertutakoak.). 9 puntu.

– Zehatz-mehatz azaltzen dira proiektuaren helburuak, ekintzak, zein publikori doan zuzenduta, iraungo duen denbora. 7 puntu.

– Koherentzia dago gaiaren, publiko hartzailearen, planteatutako helburuen, proposatutako aktibitateen eta bilatutako emaitza eta ondorioen artean. 4 puntu.

– Edukiak, ekintzak eta bestelakoak zabaltzeko era publiko hartzaileari egokitzen zaio. 3 puntu.

– Aurrekontua planteatutako proiektuari egokitzen zaio. 3 puntu.

Hala ere, udalak joko balu ekintzak ez direla bideragarriak, ez litzateke gainontzeko alderdiak baloratzen hasiko.

Banaketatik kanpo geldituko dira, halaber, gutxienez 25 puntu lortzen ez duten eskaerak. Horretarako, dauden bi ataletako –entitatea eta proiektua– bakoitzean eskatzen diren puntu guztien erdia gutxienez izan behar du.

B. Garapen-bidean dauden herrialdeetan burutuko diren lankidetzakintzetarako:

2. *Unidad administrativa encargada de la tramitación.*

Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de Servicios Sociales.

3. *Documentación a presentar.*

Se deben aportar los documentos señalados en el artículo 7 de las bases generales.

Respecto al programa de actividades y presupuesto, se deberán cumplimentar los modelos recogidos en el anexo de estas bases específicas, con un límite de número de páginas de 6 páginas en el caso a) y 10 páginas en el caso b).

De no seguir el modelo propuesto, ello supondrá la no aceptación de la solicitud. Así mismo, aun siguiendo el modelo, si no se cumplimentan todos los apartados y no figura la información sobre la valoración de los proyectos, dichos puntos quedarán sin valorar.

4. *Criterios para la valoración de las solicitudes.*

Para la distribución de las subvenciones, se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

A. Para las actividades de sensibilización o cooperación en el propio municipio:

1. Entidad solicitante, 20 puntos:

– Experiencia de la entidad: intervenciones realizadas en los tres últimos años (qué se ha hecho, dónde y con qué resultado). 5 puntos.

– La entidad demuestra su presencia efectiva en Bergara mediante el número de miembros, su representación a disposición del público, su personal técnico, las actividades desarrolladas en Bergara y el trabajo conjunto con otras asociaciones bergaresas o en iniciativas populares. 8 puntos.

– La entidad, por su misión, valores, objetivos y modo de trabajar, demuestra que tiene asimilados valores concordantes con los derechos humanos, la ecología y la sostenibilidad medioambiental, así como con la perspectiva de género. 7 puntos.

2. Proyecto, 30 puntos:

– El proyecto permite la participación de la comunidad y su fortalecimiento: se enlazan lo local y lo global, al procurar poner en relación de alguna manera a la sociedad bergaresa con el tema que se trate sobre el desarrollo. 4 puntos.

– El proyecto apoya a colectivos especialmente vulnerables y/o discriminados (infancia, poblaciones de zonas rurales y/o urbanas reprimidas, de zonas de conflicto, población refugiada, desplazada o retornada, población discriminada por su etnia o por motivos socioeconómicos...). 9 puntos.

– Se definen con precisión los objetivos, las acciones, el público al que se dirigen y el periodo de duración. 7 puntos.

– Existe coherencia entre la temática, el público destinatario, los objetivos planteados, las actividades propuestas y los resultados y efectos perseguidos. 4 puntos.

– Se adapta al público destinatario la manera de difundir los contenidos, actividades y otros. 3 puntos.

– El presupuesto se adapta al proyecto planteado. 3 puntos.

No obstante, en caso de que el ayuntamiento considerara que las actividades no son viables, no se entraría a valorar el resto de los aspectos.

Así mismo, quedarán excluidas del reparto aquellas solicitudes que no obtengan al menos 25 puntos, logrando al menos la mitad de los puntos exigidos en cada uno de los dos apartados existentes –el de entidad y el de proyecto–.

B. Para las actividades de cooperación en países en vías de desarrollo:

1. Entitate eskatzailea, 20 puntu:

1.1. Gobernuz kanpoko erakunde eskatzailea: 12 puntu.

– Erakundearen esperientzia eta gaitasun teknikoa 4 puntu.  
– Erakundeak Bergaran benetako presentzia duela erakusten du: kide-kopuruarekin, ordezkartzarekin, pertsonal teknikoarekin. 4 puntu.

– Erakundeak duen misio, balore, helburu eta lan egiteko moduan erakusten du barneratuta dauzkala giza eskubideekin, ekologiarekin eta ingurumen iraunkorrarekin bat datozen balioak, baita genero ikuspegia ere. 4 puntu.

1.2. Bestaldeko entitatea, 8 puntu.

– Horrelako proiektuetan duen ibilbidea eta proiektua burutuko den eskualde eta populazioaren ezagutza du. 3 puntu.

– Erakundeak duen misio, balore, helburu eta lan egiteko moduan erakusten du barneratuta dauzkala giza eskubideekin, ekologiarekin eta ingurumen iraunkorrarekin bat datozen balioak, baita genero ikuspegia ere. 3 puntu.

– Entitate eskatzailearen eta beste aldekoaren arteko lankidetzaren aurrekariak daude. 2 puntu.

2. Proiektua, 30 puntu:

– Proiektuak komunitatearen parte hartzea eta indartzea sustatzen du: xede den biztanleriak parte hartzen du proiektuaren proposamen, burutzapen eta kudeaketan. Herri hartzaileko emakumeek eta gizonek parte hartzeko prozesu eta guneak sortzen laguntzen du. Elkartzeko egiturak indartzen eta sareak sortzen laguntzen du. Eta bere egiten ditu onuradunak formatzeko ekintzak eta parte hartutakoaren arteko jakintzen eta esperientzien elkar-trukatzearen sustapena. 6 puntu.

– Proiektuak genero-ekitatea sustatzen du: Generoarekiko kontzientzia izatea ahalbideratzen duten ekintzak egiten dira proiektuan. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bulztatu eta sustatu egiten du. Emakumearen eskubideen defentsa eta sendotzea sustatzen du. 2 puntu.

– Proiektuak batez ere talde ahulenei edo eta baztertuenei laguntzen die (haurrak, baserri eta/edo hiri inguru zapalduetako biztanleak, gatazka inguruetakoak, errefuxiatuak, beren bizitokitik beste toki batera aldatutakoak edo itzultitakoak, etniagatik edo gizarte eta ekonomia kontuengatik baztertutakoak ...). 6 puntu.

– Proiektuak interes bereziko arlo hauek lantzen ditu: biztanleen garapen ekonomiko eta sozialen premiei erantzutea; giza eskubideak (tokian tokiko kultura, identitate, hizkuntzaren defentsa eta sustapena); balio ekologikoak (aberastasun naturalen aldeko errespetua eta babesa; ingurumen inpaktuen gaineko prestakuntza/salaketak). 6 puntu.

– Proiektuaren kalitate teknikoa: diagnostiko batean oinarritzen da (testuingurua, beharren analisia, beharri lehentasuna eman zaion eta horren justifikazioa); proiektuaren definizioa (helburu orokorrak, zehatzak; zehazki zein populaziori dagoen bideratuta; egingo den esku-hartze zehatza; nola egingo den; eta espero diren emaitzak); proiektuaren koherentzia (justifikazioa, helburuen, esku-hartzeen eta bilatzen diren emaitzen artean); proiektuaren bideragarritasuna (egin nahi dena egiteko beharko diren baliabide tekniko, pertsonal, material edo ekonomikoak eta erakunde eskatzaileak dituenak edota eskatzen dituenak); proiektua iraunkorra izatea (diru-laguntza agortuta koan proiektuaren helburuak finkatuta gelditzea, kanpoko laguntzarik gabe). 8 puntu.

– Proiektuaren aurrekontua: aurrekontua aurkeztutako proiektuari egokitzen da; bideragarritasun finantzario osoa bermatzen du (proiektua burutzeko aurkeztutako aurrekontua; erakunde eskatzaileak jarriko duena; beste aldeko erakundeak jarriko duena; udalari eskatzen diotena; beste diru-iturriak eta eskatuta duten diru-laguntzak). 2 puntu.

1. Entidad solicitante, 20 puntos:

1.1. ONG solicitante: 12 puntos.

– Experiencia y capacidad técnica de la entidad. 4 puntos.  
– La entidad demuestra su presencia efectiva en Bergara con el número de miembros, su representación, personal técnico. 4 puntos.

– La entidad, por su misión, valores, objetivos y modo de trabajar, demuestra que tiene asimilados valores concordantes con los derechos humanos, la ecología y la sostenibilidad medioambiental, así como con la perspectiva de género. 4 puntos.

1.2. Contraparte local, 8 puntos.

– Tiene una trayectoria en proyectos de este tipo, así como conocimiento de la zona y de la población donde se va a ejecutar el proyecto. 3 puntos.

– La entidad, por su misión, valores, objetivos y modo de trabajar, demuestra que tiene asimilados valores concordantes con los derechos humanos, la ecología y la sostenibilidad medioambiental, así como con la perspectiva de género. 3 puntos.

– Existencia de antecedentes de colaboración entre la entidad solicitante y la contraparte. 2 puntos.

2. Proyecto, 30 puntos:

– El proyecto fomenta la participación y el fortalecimiento de la comunidad: la población sujeto participa en la propuesta, ejecución y gestión del proyecto. Contribuye a la generación de procesos y de espacios de participación de las mujeres y de los hombres de la población destinataria. Contribuye a la formación de redes y al fortalecimiento de estructuras asociativas. Y hace suyas las actividades de formación de las personas beneficiarias, promoviendo el intercambio de conocimientos y experiencias de las personas participantes. 6 puntos.

– El proyecto fomenta la equidad de género: El proyecto incluye la realización de acciones que permiten lograr la concienciación respecto al género. Impulsa y fomenta la igualdad entre mujeres y hombres. Promueve la defensa y fortalecimiento de los derechos de las mujeres. 2 puntos.

– El proyecto apoya a colectivos especialmente vulnerables y/o discriminados (infancia, poblaciones de zonas rurales y/o urbanas reprimidas, de zonas de conflicto, población refugiada, desplazada o retornada, población discriminada por su etnia o por motivos socioeconómicos ...). 6 puntos.

– El proyecto trabaja estos aspectos de especial interés: responder a las necesidades de desarrollo económico y social de la población; derechos humanos (defensa y fomento de la cultura, identidad y lengua local); valores ecológicos (respeto y protección de la riqueza natural; formación/denuncia sobre impactos medioambientales). 6 puntos.

– Calidad técnica del proyecto: basado en un diagnóstico (contexto, análisis de necesidades, priorización de una necesidad y su justificación); definición del proyecto (objetivos generales, específicos; población concreta a la que se dirige; intervención exacta a realizar; procedimiento; y resultados esperables); coherencia del proyecto (justificación entre objetivos, intervenciones y resultados buscados); viabilidad del proyecto (recursos técnicos, personales, materiales o económicos que se precisan para lograr el objetivo y recursos de que dispone la entidad solicitante o los que solicita); sostenibilidad del proyecto (de modo que, una vez agotada la subvención, los objetivos del proyecto se sigan manteniendo, sin ayuda exterior). 8 puntos.

– Presupuesto del proyecto: el presupuesto se ajusta al proyecto presentado; se garantiza la viabilidad financiera íntegramente (presupuesto presentado para la consecución del proyecto; aportación de la entidad solicitante; aportación de la contraparte; lo que solicitan al ayuntamiento; otras fuentes de financiación y otras subvenciones solicitadas). 2 puntos.

Banaketatik kanpo geldituko dira, halaber, gutxienez 25 puntu lortzen ez duten eskaerak. Horretarako, dauden bi atale-tako (entitatea eta proiektua) bakoitzean eskatzen diren puntu guztien erdia gutxienez izan beharko dute.

Deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen dituen era-kunde eskatzaile bakoitzarekin elkarrizketa bat egitea erabaki dezake udalak, aurkeztutako proiektua defenda dezaten.

Diru-laguntzak banatzeko orduan, kontuan hartuko dira udalak gai honetarako onartutako aurrekontua, proiektu bakoitzak lortutako puntuazioa eta GKE horrek udalari eskatutako diru-laguntza.

#### 5. Aurrekontua.

Programa honen xede diren diru-laguntzetara bideratutako diru-kopurua 48.438,00 € dira, eta finantzatu da Gizarte Zerbitzuak GKE eta Elkartei diru-laguntzak emateko duen partidak: 1 0500.481.230.20.01 2019.

Aipatutako kopurua gehitu ahal izango da, Udal Aurrekontuaren exekuzio-oinarriek aurreikusten dutenaren arabera.

Kopuru hori ondoren adierazten den eran banatuko da:

– % 10 herrian bertan egingo diren sentsibilizazio edota lan-kidetza-arloko ekintzetara bideratuko da.

– Gainerako % 90 garapen-bidean dauden herrialdeetako bizilagunen baldintza sozio-ekonomikoak garatu eta hobetzera zuzendutako ekintzetara bideratuko da.

Bestalde, diru-laguntza ezingo da izan diruz lagunduko den proiekturako zehaztutako aurrekontuaren % 80a baino gehiago.

Diru-laguntza hauetan banatu ez den diru-kopurua urtean zehar suertatutako larrialdi-kasuetan banatzeko erabiliko dira.

#### 6. Onuradunen obligazioak.

Oinarri orokorretan jasotzen denaz gain, udalarekin hitzarmena sinatu beharko da.

Emandako diru-laguntzaren jakinarazpena jaso eta hilabete epean sinatu beharko da hitzarmena.

Hilabete epe hori igarota, diru-laguntzaren onuradunari lepora dakiokkeen arrazoiengatik hitzarmena sinatuko ez balitz, erakundeak diru-laguntzari uko egin diola ulertuko da.

Hitzarmen horretan alde bien eskubideak eta betebeharrak egongo dira jasota, bai eta diru-laguntza ordaintzeko era, jardura nola burutuko den, egindako jardueri buruzko txostenak eta memoriak aurkeztean bete beharrekoak, eta gutxi gorabehera jarduerak noiz hasi eta noiz bukatuko diren.

#### 7. Justifikatzeko modua eta epeak.

Kasu bietan –hau da, a) Udalerrian bertan egingo diren sentsibilizazio edo lankidetza ekintzetarako, eta b) Garapen-bidean dauden herrialdeetan egin beharreko lankidetza-ekintzetarako–, hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira dirulaguntzaren justifikaziorako oinarri orokorretako 21 eta 22. artikuluetan jasotakoa.

Hortaz gain, b) Garapen-bidean dauden herrialdeetan egin beharreko lankidetza-ekintzetarako kasuan, erakunde onuradunek ondorengo agiri hauek ere aurkeztu beharko dizkiote udalari:

1. Programa burutzeaz arduratuko den pertsonari egindako diru-transferentziaren ziurtagiria.

2. Aitorpen bat non adieraziko den diruz lagundutako programa finantzatzeko jasotako diru-laguntzak –sarrera eta ekarpenekin, Bergarako Udalarena barne– ez duela gastua gaituditu.

Así mismo, quedarán excluidas del reparto aquellas solicitudes que no obtengan al menos 25 puntos, logrando como mínimo la mitad de los puntos exigidos en cada uno de los dos apartados existentes –el de entidad y el de proyecto–.

El ayuntamiento podrá resolver realizar una entrevista con cada entidad solicitante que reúna los requisitos exigidos para la participación en la convocatoria, al objeto de que defiendan el proyecto presentado.

Las subvenciones se distribuirán en función del presupuesto aprobado por el ayuntamiento para estos fines, de la puntuación obtenida por cada proyecto, y de la subvención solicitada por la ONG al ayuntamiento.

#### 5. Presupuesto.

La cantidad consignada para las subvenciones que son objeto de este programa asciende a 48.438,00 euros, y se financiará desde la partida de Servicios Sociales para la concesión de subvenciones a ONGs y asociaciones (1 0500.481.230. 0.01 2019) (65 % del total).

Dicha cantidad será susceptible de ampliación, de conformidad con lo previsto en las bases de ejecución del Presupuesto Municipal.

La citada cantidad se distribuirá del siguiente modo:

– El 10 % se destinará a acciones de sensibilización o cooperación desarrolladas en el propio municipio.

– El 90 % restante se destinará a la realización de actividades dirigidas al desarrollo y mejora de las condiciones socio-económicas de la población de los países en vías de desarrollo.

Por otro lado, la subvención no podrá ser en ningún caso superior al 80 % del presupuesto establecido para el proyecto subvencionable.

La cuantía económica que no se distribuya en estas subvenciones se utilizará para su distribución en casos de emergencia que puedan surgir a lo largo del año.

#### 6. Obligaciones de las entidades beneficiarias.

Además de cuanto se establece en las bases generales, se deberá suscribir un convenio con el ayuntamiento.

El convenio deberá suscribirse en el plazo de un mes, a partir de la notificación de la concesión de subvención.

En caso de transcurrir dicho plazo sin haberse suscrito por causas imputables a la beneficiaria de la subvención, se entenderá que la organización renuncia a la ayuda concedida.

El convenio recogerá los derechos y obligaciones de ambas partes, cómo se realizará el pago de la subvención, cómo se desarrollará la actividad, los requisitos para la presentación de los informes y memorias sobre las actividades realizadas, así como las fechas aproximadas de inicio y finalización de las mismas.

#### 7. Justificación: modo y plazos.

En los dos casos –esto es, tanto para el caso a) Acciones de sensibilización o cooperación a realizar en el mismo municipio, como para el caso b) Acciones de cooperación a realizar en países en vías de desarrollo–, al objeto de justificar la subvención se deberá presentar antes del 31 de enero del año siguiente la documentación recogida en los artículos 21 y 22 de las bases generales.

Además de lo anterior, para el caso b) Acciones de cooperación a realizar en países en vías de desarrollo, las entidades beneficiarias deberán presentar ante el ayuntamiento los siguientes documentos:

1. Justificante de la transferencia económica efectuada a la persona responsable de la ejecución del programa.

2. Declaración manifestando que la subvención que se ha recibido para la financiación del programa subvencionado –con sus ingresos y aportaciones, incluida la del Ayuntamiento de Bergara– no ha superado la cuantía del gasto.

8. *Klausula gehigarria.*

Oinarri espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan, deialdiaren oinarri orokorretan ezarritakoa izango da aplikagarri.

8. *Cláusula adicional.*

Respecto a todas aquellas cuestiones que no se hayan establecido expresamente en las presentes bases específicas, será de aplicación lo establecido en las bases generales de la convocatoria.



**GARAPENERAKO LANKIDETZA-PROGRAMAK LANTZEN DITUZTEN GOBERNUZ  
KANPOKO ERAKUNDEAK (GKE )  
(SENTSIBILIZAZIO EDO LANKIDETZA EKINTZAK)**

**PROIEKTUEN MEMORIAK**

<b>ESKAERA EGITEN DUEN GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAREN (GKEaren) EDO ELKARTEAREN DATUAK:</b>				
1.- Erakundearen izena				
2.- Noiz eratu zen (data)				
3.- Erakundearen misio, balore eta helburuak				
4.- Burututako azken hiru proiektuak				
Proiektuaren izena	Non egin zen. Herria	Data	Izan zuen kostu ekonomikoa	
5.- Bergaran burututako azken hiru proiektuak				
Proiektuaren izena	Non egin zen. Lekua	Data	Izan zuen kostu ekonomikoa	Udalaren laguntza (jarri bai edo ez)
6.- Jarri parte hartu duzuen Bergarako beste elkarteekin edo herriko ekintzetan (zehaztu)				
7.- Bergaran edo Debagoienean egoitza soziala, ordezkaritza edo administrazio-egitura iraunkorraren helbidea				
Helbidea			Herria	
8.- Bergaran duen bazkide kopurua		Guztira	Emakumeak	Gizonak
9.- Debagoienean duen bazkide kopurua.		Guztira	Emakumeak	Gizonak
10.- Proiektuan parte hartuko duten Bergarako-Debagoieneko boluntario kopurua.		Guztira	Emakumeak	Gizonak

<b>PROIEKTUAREN LABURPENA:</b>	
<b>Proiektuaren izena</b>	
<b>Landuko duen arloa (markatu x batekin dagokion lekuan)</b>	
Sentsibilizazioa	<input type="checkbox"/>
Lankidetzak	<input type="checkbox"/>
<b>Proiektuaren ezaugarriak</b>	
Helburu orokorra	
Helburu zehatzak	
Zehazki egingo dena: zer, noiz hasi eta bukatu, iraupena	
Proiektuaren onuradun zuzenak eta zeharkakoak (zein kolektibori zuzentzen zaion, kopurua, adina, sexua barne)	
Proiektua herrian zabaltzeko eta burutzeko egin dena eta erabilitako bideak	
<b>Nondik sortu den proiektuaren beharra: aurrekariak, testuingurua, justifikazioa</b>	
<b>Entitateen eta gizarte mugimenduaren parte hartzea proiektuan</b>	
<b>Aurreikusitako emaitzak</b>	
<b>Denbora</b>	
Proiektua gauzatzeko epea	
Noiz hasiko den	
Noiz bukatuko den	

<b>AURREKONTUA / PRESUPUESTO</b>			
	<b>Gastua (€)</b>		<b>Sarrera (€)</b>
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	
<b>GASTUEN ETA SARREREN ARTEKO ALDEA</b>			
<b>UDALARI ESKATUTAKOA</b>			

Data eta sinadura

(\*) Ezinbestekoa izango da ezarritako atal guztiak betetzea, bai GKEari edo elkarteari dagozkionak, bai proiektu eta aurrekontuari dagozkionak ere.

(\*\*) Bestalde, proiektuaren memoriak dituen hiru inprimakien luzera guztira (GKE, edo elkarteari, proiektuari eta aurrekontuari dagozkionak) ezin izango da izan 6 orrikoa baino gehiagokoa.

GARAPENERAKO LANKIDETZA-PROGRAMAK LANTZEN DITUZTEN GOBERNUZ  
KANPOKO ERAKUNDEENTZAKO (GKE) DIRU-LAGUNTZEN INPRIMAKIA

**PROIEKTUEN MEMORIAK**

**ESKAERA EGITEN DUEN GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAREN (GKEaren) ETA BESTE ALDEKO ERAKUNDEAREN DATUAK:**

**ESKAERA EGITEN DUEN GKE:**

1.- Erakundearen izena

2.- Noiz eratu zen (data)

3.- Erakundearen misio, balore eta helburuak (gehienez 10 lerro)

4.- Burututako azken hiru proiektuak

Proiektuaren izena	Non egin zen	Data	Izan zuen kostu ekonomikoa

5.- Bergaran edo Debagoiengan egoitza soziala, ordezkaritza edo administrazio-egitura iraunkorraren helbidea

Helbidea	Herria

6.- Bergarako Udalaren laguntzarekin burututako azken hiru proiektuak

Proiektuaren izena	Non egin zen	Data	Izan zuen kostu ekonomikoa

7.- Bergaran duen bazkide kopurua	Guztira	Emakumeak	Gizonak

8.- Debagoiengan duen bazkide kopurua.	Guztira	Emakumeak	Gizonak

9.- Proiektura bideratuko diren Bergarako-Debagoieneko boluntario edo kooperanteen kopurua.	Guztira	Emakumeak	Gizonak

**BESTE ALDEKO ERAKUNDEA:**

9.- Izena

Helbidea

10.- Noiz eratu den (data)

11.- Erakundearen misio, balore eta helburuak

12.- Buruturiko azken hiru jarduerak		
Jarduera	Data	Kostu ekonomikoa
13.- Proiektuaren arduradunaren izena		Kargua
14- Proiektuaren arduradunaren esperientzia		
<b>ESKAERA EGITEN DUEN GKE-AREN ETA BESTE ALDEKO ERAKUNDEAREN ARTEKO LOTURA:</b>		
15- Harremana hasi zeneko urtea		
16- Elkarlanean buruturiko proiektuak (zerrendatu gehienez hiru)		
Proiektuaren izena	Data	Kostu ekonomikoa

Eskaera hau sinatzen duen \_\_\_\_\_ jaun/andreak (NAN: \_\_\_\_ ) zinpean adierazten du aurkeztutako datuak benetakoak direla, eta hitz ematen du oinarri hauetan ezarritakoa bete eta aurkeztutako proiektuak aurrera eramango dituela.

Halaber, jakinean dago inprimaki honetako datu pertsonalak Bergarako Udalak behar bezala baimendutako fitxeroetan sartuko dituela. Datu horiek bakarrik udal kudeaketarako erabiliko dira, baina beste administrazio publikoei edo hirugarrenei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (Datu Pertsonalen Babesari buruzkoan) aurreikusitako kasuetan. Halaber, datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dudala ondorengo helbidera zuzenduta: Bergarako Udala.- San Martin Agirre plaza, 1 - 20570 Bergara.

Bergara, 2019ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_

SINADURA

<b>PROIEKTUAREN LABURPENA:</b>	
<b>Proiektuaren izena</b>	
<b>Egingo den herrialdea</b>	
<b>Kokapen zehatza</b>	
<b>Landuko duen edo dituen arloak (zenbatu gehienez hiru, garrantziaren arabera. Garrantzi gehienak duena 1a, hurrengoa 2a, eta hurrengoa 3a).</b>	
Komunitatea indartzea	
Emakumeen jabetasuna eta lidergoa, emakume eta gizonen berdintasuna	
Elikadura Subiranotasuna	
Garapen ekonomiko eta soziala	
Azpiegitura, energia eta komunikazioak	
Saneamendua, edateko ura eta giza kokalekuak	
Osasuna	
Hezkuntza eta prestakuntza	
Talde ahulenen indartze eta gizarteratzea	
Giza eskubideak	
Ekologia	
Beste batzuk	
<b>Proiektuaren ezaugarriak</b>	
Helburu orokorra	
Helburu zehatzak	
